

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

#### **179/2019 Foru Agindua, ekainaren 7koa, udalek 2019ko ekitaldian sustatutako musika prestakuntzako programak garatzeko dirulaguntzen deialdi publikoa onesten duena**

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak proposatzen du Arabako lurralde historikoko udalek sustatutako musika prestakuntzarako programak 2019. ekitaldian garatzeko dirulaguntzen deialdi publikoa egitea.

Horretarako, nahitaezkoa da berariazko esparru bat ezartzea, sailak ematen dituen dirulaguntzen xede diren kultura ekimenak arautzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko udalek sustatutako musika prestakuntzarako programak 2019. ekitaldian garatzeko dirulaguntzen deialdi publikoa onestea. Horretarako, 20.000 euro esleitzen dira gehienez, eta 2015eko urriaren 21eko ALHAOn (123. zenbakia) argitaratutako Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko da deialdia. Foru dekretu horren bidez, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arautzaile orokorrak onartu ziren.

Bigarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2018ko 2019ra luzatutako gastuen aurrekontuko 70.1.05.73.02.462.90.01 partidaren kontura (xedapen erreferentzia:105.2864) ordainduko da.

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du, Kultura Ekintza Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, sei hilabeteko epean, gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtoa jar dakioko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 7a

*Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua*  
**IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE**

*Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria*  
**JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO**

## Eranskina

### Arabako Lurralde Historikoko udalek 2019ko ekitaldian sustatutako musika prestakuntzako programak garatzeko dirulaguntzen deialdia

#### Lehenengoa. Xedea eta helburua

Deialdi honen bitartez, dirulaguntzak eman nahi dira lehiaketa bidez, eta xedea da Araban musika prestakuntzako programak diruz laguntzea. Programa horiek Arabako lurralde historikoko udalek gauzatu beharko dituzte 2019ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era arte, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraituz. Foru dekretu horren bidez, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onetsi ziren.

#### Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezin izango du inoiz gainditu horretarako bideratu den diru kopurua; hau da, 20.000 euro. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2018ko 2019ra luzatutako gastuen aurrekontuko 70.1.05.73.02.462.90.01 partidaren kontura ("Musika prestakuntza, Arabako herrietan") ordainduko da.

Esleituko den dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa, sustatuko den ikastaro kopurua gorabehera, ezin daiteke izan 5.000 euro baino gehiago udal bakoitzarentzat.

#### Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta baztertuak

Entitate onuradunak:

Arabako Lurralde Historikoko udalak, Gasteizko Udala izan ezik.

Baztertutako erakundeak:

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan zehaztutako egoeretan dauden erakundeak deialditik kanpo geratuko dira.

#### Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

Udal eskatzailearen udalerrian musika irakastea helburu duten programek baino ez dute jasoko dirulaguntza, udalak berak sustatzen baditu.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Eskaera egin duen udalak irakasleak zuzenean kontratatzean sortzen diren gastuak. Gastu horien barruan sartuko dira soldatak (joan-etorriak, dietak, ordezkaritza gastuak eta abar izan ezik), gehi udalaren konturako gizarte segurantzako kuota. Kontratazio hori udalak zuzenean egin behar du, edo kanpoko erakunde batek eman behar du zerbitzua.

#### Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari bidali behar zaizkio eskaerak, eranskinean argitaratzen den ereduari egokituta. Era berean, eskaerarekin batera honako agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

a) Administrazio agiriak.

– Egiaztagiria bat, erakunde eskatzailearen organo eskudunak eskaera baimentzeko eta gastuaren zati bat finantzatzeko hartutako erabakiarena.

b) Dokumentazio espezifikoak:

– Musika irakasteko programaren proiektua. Honako hauek aipatuko dira banan-banan:

• Programaren deskribapena: irakasle, ikasle eta ikastaro kopurua.

• Irakasleak kontratatzeko gastuen zenbatekoa: soldatak gehi gizarte segurantzako kuotak (2019ko urtarriletik azarora).

- Diruz lagunduko diren musika ikastaroetako irakasleak nahitaezko titulazioa duela egiaztatzen duten agiriak. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan musika eskola direlako arautu gabeko berariazko musika irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio duten oinarritzko arauak ezartzen dituen urriaren 27ko 289/1992 Dekretuan xedatuta dago irakasleen titulazioa zein izan behar den.

- Udalarena ez den erakunderen batek eskaintzen badu zerbitzua, hura eskaintzen duen erakundeak musika irakasteko edo kultura zerbitzuak eskaintzeko hezkundarekin zerikusia duten jarduera ekonomikoen gaineko zergaren (JEZ) epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria aurkeztu ahal izango du Eusko Jaurlaritzaren urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak irakasleek zer titulazio izan behar duten egiaztatzen duten agirien orde.

#### **Seigarrena. Aurkezteko epea**

Hogei egun natural izango dira eskaerak aurkezteko, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### **Zazpigarrena. Prozedura izapidetzea eta dirulaguntzen zenbatekoa**

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua da espedientea izapidetzeko organo eskuduna.

Dirulaguntzen zenbatekoa irakasleak kontratatzeako kostuak (soldata eta gizarte segurantzako kuota) egiten duenaren ehuneko 70 izango da. Udal bakoitzari, gehienez, 5.000 euro eman ahal zaizkio. Kontzeptu horiengatik dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontua, gehienez, 10.000 eurokoa izango da.

Eskaera kopurua eta eman beharreko dirulaguntzak direla eta, dirulaguntzen gehieneko ehunekoak gutxitu beharko balira, neurri berean gutxituko lirateke udal eskatzaile guztien artean.

#### **Zortzigarrena. Ebazpena**

1. Eskaerak Balorazio Batzordeak aztertuko ditu. Batzordeburua Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kultura Ekintza Zerbitzua-ren burua eta aipatutako zerbitzuari atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako epeen barruan gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

2. Eskatzaileari ez zaio entzunaldiko izapiderik eskainiko, ebazpenean eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik ez direlako aintzat hartuko.

3. Organo eskudunak eman beharreko ebazpena emango du, Kultura Ekintza Zerbitzuak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, interesdunek ulertu beharko dute eskaera ezetsi egin dela.

4. Esleipen ebazpenean, dirulaguntza nori eman zaion zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertu beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta dirulaguntza zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpenaren berri emango zaie pertsona onuradunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

6. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

7. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurkaratu ezean, nahi izanez gero, errekurtsua aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoan, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso ondorengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

#### **Bederatzigarrena. Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea**

1. Gastu osoa (10.000 euro baino gutxiago denean) edo gehienez diruz lagundu daitekeen aurrekontua (10.000 euro) justifikatzeko balio duten agiriak aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntza. Hona hemen, aurkeztu beharrekoak:

a) Kontratututako pertsonen nominen eta Gizarte Segurantzaren TC1 eta TC2aren jatorrizko agiriak edo haien fotokopia konpultsatuak, eta kontratuaren edo kontratuen fotokopia. Dirulaguntzaz ordaindutako gastuak ordaindu izana ere agiri bidez frogatuko da.

b) Beste norbaitek kudeatu baditu, zerbitzu horrengatik kobratu diotena egiaztatzen duen jatorrizko ordainagiriak edo haien fotokopia konpultsatuak aurkeztuko ditu; hau da: irakasleak kontratatzeak eragindakoa eta gastu hori ordaindu dela egiaztatzen duten agiriak.

Halaber, 55/2015 Foru Dekretuaren arabera, hauexek aurkeztu behar dira:

- Diruz lagundutako jardueraren memoria.
- Jardueraren diru sarreren eta gastuen balantzea (2019ko urtarriletik azarora).

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2019rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalia atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Justifikazioa Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuaren hamargarren klausulan ezarritakoaren arabera egingo da. Foru dekretu horren bidez, Euskara, Kultura, eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituen oinarri orokorrak onartu ziren.

2. Aipatutako justifikazioa aurkezteko epea 2019ko abenduaren 5ean amaituko da.

Justifikazio hori Kultura Ekintza Zerbitzuaren buruak adostuko du.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.


2020ko otsailaren 21erako aurkeztu beharko dira, beranduenez, diru laguntza justifikatzeko gastuak ordaindu izana egiaztatzeko agiriak.

#### **Hamargarrena. Dirulaguntzen bateraezintasuna**

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko beste sailetatik edo honi atxikitako erakundeetatik helburu bererako jaso ditzaketen dirulaguntzekin. Hala ere, dirulaguntzaren emakida arautu duten oinarri orokorretan ezarritakoa beteko da.

#### **Hamaikagarrena. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira hedabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Arabako udalek sustatutako musika prestakuntzarako programak (eranskina)</b></p> <p><b>2019</b></p> <p>Programas de formación musical promovidos por ayuntamientos de Álava (anexo)</p>
	<p>Euskara, Kultura eta Kirol Saila</p> <p>Departamento de Euskera, Cultura y Deporte</p>

Eskaera zk. ■ N° Solicitud      Eskara data ■ Fecha Solicitud

--	--

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

### ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE <sup>(1)</sup>

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

IKZ ■ CIF

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

--

Sozietatearen izena ■ Razón social

--

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

--	--	--	--	--	--

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

--	--	--	--	--

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

--

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

--	--	--

### JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL <sup>(2)</sup>

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

--	--	--	--	--	--

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

--	--	--	--	--

### LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

NAN

AIZ

Besteren bat

DNI

NIE

Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

--

Sexua ■ Sexo

Emakumea

Gizona

Mujer

Hombre

Izena ■ Nombre

--

Lehen abizena ■ Primer apellido

--

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

--

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

--


Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

--	--	--

Orria ■ Hoja 1/4

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Arabako udalek sustatutako musika prestakuntzarako programak (eranskina)</b></p>
	<p><b>2019</b></p> <p>Programas de formación musical promovidos por ayuntamientos de Álava (anexo)</p>

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte


**BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS <sup>(3)</sup>**

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Complimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

<b>BANKUA ■</b> BANCO	
<b>IBAN</b>	<b>SWIFT</b>

<p><b>(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■</b> (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)</p> <p><b>Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■</b> Conforme entidad financiera (firma y sello)</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p><b>Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela</b></p> <p>La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.</p>	<p><b>(ESKATZAILEAK bete behar du) ■</b> (A rellenar por la persona SOLICITANTE)</p> <p><b>Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ■</b> Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p><b>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT:</b></p> <p><input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA</p> <p><input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru aldundiaren hirugarren moduan</p> <p><b>INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:</b></p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual <u>SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD</u></p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.</p>
---	--

Orria ■ Hoja 2/4



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
www.araba.eus

**Arabako udalek sustatutako musika prestakuntzarako programak (eranskina)**  
**2019**  
Programas de formación musical promovidos por ayuntamientos de Álava (anexo)

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

**JARDUERARI BURUZKO DATUAK ■ DATOS DE LA ACTIVIDAD**

Aurkeztutako aurrekontua ■ Presupuesto presentado

Ustezko sarrerak ■ Ingresos previstos

Eskatutako zenbatekoa ■ Importe solicitado

Programa egingo den lekua ■ Lugar de impartición del programa .....

Ikasleak guztira, sexuaren arabera (2019-01-01etik 2019-11-30era arte) ■ Alumnado desagregado por sexo (desde el 01-01-2019 hasta el 30-11-2019): ..... emakume ■ mujeres ..... gizon ■ hombres

Irakasleak guztira, sexuaren arabera ■ Profesorado desagregado por sexo: ..... emakume ■ mujeres ..... gizon ■ hombres

**ERANTSITAKO AGIRIAK ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA**


(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

- Erakundearen organo eskudunak gastua baimentzeko eta finantzatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria ■ Certificado del Acuerdo del Órgano competente de la Entidad, autorizando la solicitud y financiación del gasto
- Musika prestakuntza programaren proiektua: deskribapena, irakasle eta ikasle kopurua eta ikastaroak eta irakaslearen kontratatzeagatik sortutako gastuaren zenbatekoa (soldatak gehi Gizarte Segurantzza) ■ Proyecto del programa de formación musical: descripción, número de profesores/as alumnos/as y cursos e importe al que asciendan los gastos de contratación del profesorado (sueldos más Seguridad Social)
- Irakaslea urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak xedatutakoarekin bat datorrela egiaztatzen duten agiriak ■ Documentación que acredite que el/la profesor/a es acorde con lo estipulado por el Decreto 289/1992, de 27 de octubre
- Zerbitzua ematen duen erakundearen jardura ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) alta emanda egotearen egiaztatzea, hala badagokio. ■ Certificado de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE) de la entidad prestadora del servicio, en su caso.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordezkailearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante <sup>(4)</sup>

Orria ■ Hoja 3/4



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava  
www.araba.eus

**Arabako udalek sustatutako musika prestakuntzarako programak (eranskina)**  
**2019**  
Programas de formación musical promovidos por ayuntamientos de Álava (anexo)

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

**Oharra (1)**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Kultura deialdiak izeneko fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua Arabako Foru Aldundiak kultura ekitaldien berri jakin nahi duten pertsonentzako informazioa kudeatzeko eta zabaltzeko egiten da. Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuez kanpo. Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOk aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba). Argibide gehiago: <http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

**Oharra (2)**

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoa bakararen helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

**Oharra (3)**

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titularitatekoa baiz, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordainketen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei

**Oharra (4)**

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT LEHENENGOA. Ez ordezkatzeko dudak edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezein kidek ez duela sexua dela eta inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen prozesuetan edo funtzionamenduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**BIGARRENA.**

Ez ordezkatzeko dudak edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezein kidek ez duela zigorrik izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta inor baztertzeko, eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, lan arloko arau hausteak eta zehapenei buruzko legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.

**Nota (1)**

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el Fichero denominado Convocatorias culturales titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de información y comunicación dirigidas a personas interesadas en actividades culturales. Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información: <http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>

**Nota (2)**

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente

**Nota (3)**

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

**Nota (4)**

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

**PRIMERO.**

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, realizan actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

**SEGUNDO .**

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.